

Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABALETA

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko martxoak 25 • 164. zka.

Lorautsari alergia

Udaberri latza aurrikusten da

Iturririk iturri: Jaime García ■ Iritzia: Gorka Etxabe ■ Kirolak: Asier Atxa



VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

Aldibin *berri* ugari dituzu



S/V40 TDI



Hyundai Sonata *berria*




Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO
Auto Suecia



Almovil, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.




Alergiak jasaten dituen norbait ezagutzen duzu?

Jaime Mancebo

(Ikaslea eta langilea)

Nire lehengusu batek hautsari dio alergia eta urte guztian izaten ditu arnasa hartzeko arazoak.



Lali Solís

(Langilea)

Pinuetako hautsak min ematen dion lankide bat dut, begiak gorrituta izaten ditu eta eztulka aritzen da. Ez duela erremediorik esan diote, jasan egin behar.



Maitane Merchante

(Ikaslea)

Asma apur bat daukat eta udaberrian arazo gehiago izaten dut; bentolinarekin aurre egiten diot. Txikitari aratustee-tako margoek ere kalte egiten zidaten, aurpegia gorritzen zitzaidan.



Raul García

(Langilea)

Nik ez daukat baina polenari alergia dion lagun bat dut. Aurpegia granoz josita izan ohi du eta sendagaiak hartu behar izaten ditu.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazetak oporrak

Aste Santua dela eta Aretxagazetak ere opor egun batzuk hartuko ditu. Hurrengo alea apirilaren 15ean izango duzue zuen artean. Ordurako indar berriturik eta lanerako gogoz beterik izatea espero dugu. Beste barik, opor lasai eta on batzuk pasa ditazuela opa dizuegu.

ARETXAGAZETAKO BATZORDEA

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gozone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltea. **Banatzaila:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Ohiko osoko bilkura burutu zen astelehenean

Aurtengo aurrekontuen onarpena Aste Santu osterarte behintzat luzatuko da

Pasa den hilaren 15ean ohiko osoko bilkura burutu zen udaletxean. Bertan 6 puntu onartu ziren:

1.- Aurreko akten onarpena.

2.- 11-B zonaldeko hasierako onarpena. Durana kale ostean egin behar dituzten etxebizitzaren hasierako periaren onarpena burutu zen. Behin betiko onarpena egin aurretik 15 eguneko jendeaurreko epea balduko da alegazioak aurkezteko.

3.- Udala eta industrialdearen arteko permuta. Bainetxeko poligonoan udalak hainbat lur duenez hauek industrialdearekin trukatu edo permutatuko ditu, berarentzat

1000 m² eraikigarri geratuko da.

4.- 13-C eta D zonaldeko enparantzaren izena. Toponimiari jarraitu edo ez eztabaidatu ondoren, azkenean, jendeartean ezagunagoa delako, Ilargi izena jartea erabaki zen.

5.- Interes sozialeko enpresen ekimena izendatzea. Udalak aurkeztutako ordenantzaren arabera interes sozialeko enpresei diru laguntzak emango zaizkie ordenantzan agertzen diren baldintzak betez gero. Diru laguntza hau, utilajeak egiten dituen Utilki SAL enpresak eskatu du eta baldintzak betetzen dituen edo ez aztertuko da.

6.- Arritzeko S.L. eta Udalaren arteko hitzarmenean aldaketak. Lurren %22,64 udalarena izanik, hauek, 180 m²tuko etxebizitza eta garaje baten truke aldatzea erabaki zen, udalak etxebizitza aukeratzeko ahalmena izanik. Jadanik zehaztu da etxebizitza hau zein izango den, hego mendebaldera ematen duen 1.pisukoa, baina ezin izan duenez aukeraketarik egin konpentsazio gisa 1.000.000 pta. emango dio Arritzekok etxebizitza eta garajeaz gain. Horrez gain lehengo hitzarmenean zehaztu bezala aprobetxamenduen %10 ere jasoko du.

Presoen aldeko plataforma sortu da herrian

Elkarte eta talde guztiei luzatu zaie deialdia, elkarren artean ekintzak antolatzeke asmoz

EAJ, IU, EA, HB, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Komiteak martxoak 15erako herriko elkarte eta talde guztiei bilera baterako gonbidapena luzatu zien. Bertan, euskal presoen arazoa konpondu ordez, larriagotzen doala, eta espainiar gobernuak presoei dagokien legea ez duela betetzen ikusita, (Euskal Herrira ekartzea, zigorraren 3/4 beteta dutenak askatzea eta 30. artikulua betetzea) politikoen eskueztatik herritar guztien eskuetara pasatu beharra dagoela esan zen.

Herri dinamika

Lehenengo bilera honetan talde ugari falta zenez, bigarren bat antolatu zen martxoaren 22rako, iritzi

gehiago jaso ahal izateko. Astelehen honetan 16 bat taldetako ordezkariak bildu baziren ere, etortzerik izan ez zuten beste askok ere beren oniritzia eman zuten. Talde politikoek ekintza honi hasiera eman arren, herriko talde eta elkarteak izango dira aurrera eramango dutenak, herri dinamika sortu nahi baita.

Manifestazioa

Antolatu den lehenengo ekintza zapatu honetan arratsaldeko 7etan Herriko plazatik aterata egingo den manifestazioa izan da. Lema bakarra izango du: Euskal Presoak Eus-



Hainbat taldetako ordezkariak bildu dira bileretan

kal Herrira, eta bukaeran idatzi bat irakurriko da.

Aurrera begira beste ekintzak batzuk ere buruan darabilte plataformakoek, prentsa aurrean aurkezpen ofiziala egitea, esaterako.

IRIARTE
Umeen denda
Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tfnoa: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero
Dekorazioa:
Soraya Arquero

Kurtzebarri eskolan antzerki astea

Aste honetan VII. antzerki astea ospatu da Kurtzebarri eskolan. Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleek antzerki saioak eskaini dituzte bertara hurbildutako guraso eta lagun ugariaren aurrean.



Sergio Scariolo-ren hitzaldia Oñatoran

Astelehen honetan, hilak 22, Sergio Scariolo, Tau Cerámica saskibaloitaldeko entrenatzailea, Oñatoran izan zen. Fagorreko nagusi ugariaren aurrean taldeko lanak duen garrantziaz hitzegin zuen berak.

Euskaltegikoak sagardotegira

Lehengo martxoaren 12an Euskaltegiko talde batek, aurtengo sagardoa dastatuguran, Aramaixoko sagardotegira irteera egin zuen. Klaseetatik aparte jai giro eta umore onean ere euskaraz bizi daitekela frogatu ahal izan zuten ikasle hauek.



Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendik batzar orokorra

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak datoren ostiralerako ohiko batzar orokorrerako deialdia luzatu nahi die bazkide guztiei. Bertan Atxabalta telebista eta Aretxagazetako diru kontuen eta aurrera begira dituzten asmo eta helburuen berri emango da, batzordekide berrien aurkezpena ere egingo da. Udaletxe zaharreko, Durana 11, 1. pisuko aretoan arratsaldeko 6,30etan izango da lehenengo deialdia, eta 7etan bigarrena. Bazkideen galdera eta iritziak pozik hartuko dira; beraz, jendea animatzea besterik ez da falta.

Udaletxean sarrera berria

Ongizate saileko bulegoa beheko solairura pasatzeaz bat, mailak pasatzeko zailtasunak dituzten guztientzat, pertsona nagusi nahiz ume kotxedunentzat, sarrera berria egokitu dute udaletxeko atzeko aldean. Hemendik aurrera udaletxeko lorategira ematen duen ate handia zabalik egongo da eta handik zuzenean beheko solairura sartu ahalko da. Bertan ongizate saila eta, momentuz, sarrerako leihatila egongo dira. Poliki-poliki jendea ohi-tura hartzen joango den itxaropena dute udaletxean.



LASAGABASTER-en
AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Aukera ezberdinak 3. adinekoentzat

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak 3. adinekoendako antolatu diren aukera ezberdinen berri eman nahi du.

3. adinekoendako oporraldiak

Urtero bezala aurten ere Inersok 1999/2000 denboraldirako oporraldiak antolatu ditu. Bertan izena eman ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- 65 urtetik gorakoa izatea
- 60 urte edo gehiagoko Gizarte Asegurantzako pentsiodunak izatea.
- Lagun bezala senar-emazteak onartuko dira bakarrik. Honek ez du bete beharko adineko, pentsioko edo nazionalitateko baldintzarik.

Oporraldiak igaro daitezkeen leku eta egun kopuruak, beren prezioekin, ondorengoak dira:

- Penintsula (15 egun): 26.625 pta.
- Penintsula (8 egun): 17.150 pta.
- Baleareak (15 egun): 31.025 pta.
- Baleareak (8 egun): 20.925 pta.
- Kanariar irlak (8 egun): 28.375 pta.
- Portugal (8 egun): 20.400 pta.

- Kultur zirkuituak (Galizia eta Asturias 6 egun): 16.900 pta.

Interesatuak, eskaera egiteko, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako bulegora jo dezakete apirilaren 15a baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero, Madrileko 902 10 98 99 telefono zenbakira dei daiteke.

Egonaldiak egoitzetan


Gizartekintzak ateratako programa honen helburu nagusia adineko pertsonak beren etxe eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzea da. Horretarako, adinekoa etxean zaintzen duten familiei, egun batzutan,

atsedenaldi bat eman nahi die, adinekoa behar bezala zainduko duen egoitza batean denboraldi batez sartzeko erraztasunak emanaz.

Egoitzako egonaldia urtean gehienez 31 egunekoa izango da. Lehenetsuna familiak etxean zaintzen dituen eta eguneroko bizimoduan besteren beharra duten pertsonak izango dute eta egoitzetan etxean bezala zainduko dira. Egonaldiak ordaintzeko diru laguntzak ere badaude, adinekoaren ezgaitasun eta diru sarreraren arabera. Informazio gehiago udaletxeko gizarte zerbitzuan edo 900 43 43 43 telefonon.



Adineko pertsonak etxean dituzten familiei laguntzeko programa



Parrokiako misio taldea aurten ere lanean

Iaz Aretxabaletako Parrokia barruan sendotzako taldeetako gazteek sortutako misio taldea aurten ere lanean hasia da. Gabon inguruan aspirina bilketa egin zuten Congoko Errepublikara bidaltzeko eta orain Mexikoko hiriburuko etxerik gabeko haur batzuei lagundu nahi die, harrera etxe bat lortzeko dirua bilduz. Horretarako zozketa berezia antolatu da, eta Aste Santua ganean izanda, zer hobeto zozketatzeko pazko bildotsa baino. Apirilaren 4an, pazko egunean, izango da zozketa. Bitartean herritar guztiei beren laguntza eskatu nahi diote gazte hauek, helburu hau lortu ahal izateko.



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Askoren izenean ematen diren mezei buruzko araudia

Aste Santuko ospakizunen egitaraua iazkoaren antzekoa izango da

Aretxabaletako Parrokiako Liturgi Batzordeak "askoren izenean ematen diren mezak" gaia denbora luzean aztertu ostean, Pastoral Batzordean proposamen bat aurkeztu zuen. Batzorde honetan hainbat buelta eman eta gero, onartu eta orain praktikara eraman nahi den araudia atera da.

Antonio Astigarraga parrokoaren esanetan gai honen inguruan aspaldi erabakiren bat hartu beharra zegoen "liturgiarentzat egun haundiak diren eukaristietan hilen aldeko intentzioak gero eta gehiago pilatzen dira eta ondorioz egunari dagokion festa kutsua baldintzatua gelditzen da". Elkarrekin fedearen muina den Jesusen heriotz eta piztea ospatzeko elkartu beharko litzatekeela dio eta ez beren hildakoak oroitzeko bakarrik, nahiz eta aspaldian itxura hori eman.

Bakarkako otoitzari garrantzi haundia eman beharko litzai-

keela ere esaten du "Jainkoak denon otoitzak entzuten ditu eta ez meza emaileak esaten dituen izenak bakarrik. Jainkoaren maitasunarengan konfidantza falta ere agertarazten dugula iruditzen zait, hildakoak salbatzeko eukaristia kopuru bat eskatu beharra dagoela pentsatzean".

Elizaren araudia:

Guzti honen aurrean elizaren araudia aztertuz gero, zera ikus daiteke:

- Parrokoa igande edo jaiegunetako meza bat gutxienez bere eliztarren alde eskaintzera behartuta dago.

- Hildako asmo bakoitzarengatik meza berezi bat ematea arau orokortzat hartu behar da.

- Parroki edo eliz bakoitzean astean gehienez bi aldiz ospatu daiteke bat baino gehiagoren alde meza.

- Eukaristia ezin daiteke "kontsumozko ondasun" bat bezala ulertu, beraz, ez da arrazoi ekonomiko ez

ohiturazkorik onartuko araudi hau ez betetzeko.

Antonioren esanetan ohitura aldatzea oso zaila izango da, baina datorren Aste Santutik aurrera poliki-poliki ondoko araudia betearaztea nahi da:

1.- Ondorengo festaburu eta festetako meza nagusietan ez dira intentzioak onartuko (ez urtemugarik, ez bederatzuurrenik): Domusantu eguna (azaroak 1), Hildako Fededunak (azaroak 2), Eguberri eguna (abenduak 25), Jainkoaren Ama Maria Santua (urtarrilak 1), Ostegun eta Larunbat Santuak, Pazko Igandea, Corpus Christi, Loiolako Iñazio Donea (uztailak 31) eta Andre Mariaren Zeruratzea (abuztuak 15)

2.- Sakramenturen bat (bataioa, lehenengo jaunartzeak, sendotza, gaixoen oliadura, ministeritza) ospatzen den eukaristietan ere ez dira intentzioak onartuko.

Aste Santuko egitaraua:

Astelehen eta astearte Santua (martxoak 29-30)

- Arratsaldeko 7,30etan: Hirutasun txit Santuari buruzko gogoetak, parrokiakian.

Asteazken Santua (martxoak 31)

- Arratsaldeko 7,30etan: Penitentzi elkarteko ospakizuna, parrokiakian.

Ostegun Santua (apirilak 1)

- Goizeko 10etatik 12etara: Penitentiaren sakramentua, bakarka, parrokiakian.
- Arratsaldeko 5,30etan: Jaunaren azken afariko eukaristia, monastegian.
- Arratsaldeko 7etan: Eukaristia nagusia, parrokiakian.
- Gaueko 9etan: Otoitza, monastegian.

Ostiral Santua (apirilak 2)

- Goizeko 9etan: Gorespenak, monastegian
- Goizeko 11etan: Gurutz bidea, parrokiatik Izurietara.
- Arratsaldeko 4etan: Jaunaren nekaldiko ospakizuna, monastegian.
- Arratsaldeko 5,30etan: Jaunaren nekaldiko ospakizuna, parrokiakian.

Larunbata Santua (apirilak 3)

- Goizeko 9etan: Gorespenak, monastegian.
- Gaueko 9etan: Pazko Gaubeila eta bataioak, parrokiakian.
- Gaueko 10etan: Pazko Gaubeila, monastegian.

Pazko Igandea (apirilak 4)

- Eukaristia guztiak igandetako orduetan izango dira.

Oharra: Parrokiako ospakizunak bi hizkuntzetan izango dira eta monastegikoak euskaraz.

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKU
URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

BEIRALAN

B

KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Aretxabaletako lurrak Aizkorriko parke natural barruan

Gipuzkoako haundiena izango da eta Otzaurtetik Arlabaneraino joango da

Aurten Eusko Jaurlaritzak Aizkorriko parke naturalari baiezkoa ematen dionean, Gipuzkoako laugarrenean bihurtuko da Aralar, Aia-ko Arria eta Pagoetarekin batera. Berau izango da haundiena, 20.000 hektarea baititu eta beste probintzia batekin, Arabarekin hain zuzen, lurrak elkarbanatuko dituen bakarra izango da. Otzaurten hasi eta Arlabaneraino luzatuko da parke naturala. Bertan Gipuzkoako Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Legazpi, Zerain eta Zegama herrietako lurrak egongo dira, baita Arabako Asparren eta San Millanekoak ere.

Fauna eta flora berezia

Aberastasun haundiko fauna azaltzen da Aizkorri inguru honetan. Hegaztien artean sai zuriak, belatz haundiak eta arrano beltzak ikus daitezke. Orkatzategiko haitze-

tan kabia jartzen duten hogeit bat sai arre bikote ere badaude. Basoko animalien artean, berriz, lepahori, katajineta, basurde eta orkatzak aurki daitezke.

Landaretzari dagokionez, Legazpiko Barrendiola urtegi inguruan haritzondo zurien basoak aurki daitezke, baita pagadi ugari ere parke osoan zehar. Harridurarik haundiena, ordea, Pirineoko mendietan jaiotzen den mendiko geranioak sortu du, hemen ere ikus baitaiteke.

Ingurune kulturala

Aizkorriko parke natural honetan, babestutako gradu ezberdinak dituzten uneak egongo dira. Naturaz gain, bertako ingurune kulturala ere bultzatu nahi dute Foru Aldundikoek. Horretarako, bertan barneratutako hainbat herrik, turismoari begira, eraberritze planak ditu. Punturik interesgarrienak Leintz Gatzaga bere gatzagekin, Oñati kobekin, Legazpi burdin olakin eta Zerain izango lirateke, baita Arantzazuko monastegia ere.

Parke eolikoa

Ekologisten alde-tik protesta haundienak sortarazi dituena Elgeako mendilerro-



Naturaz gain ingurune kulturala ere bultzatu nahi da

an kokatuko den parke eolikoa izan da. Ingurugiro diputatuaren arabera, parke naturala eta haize errotak ez dira bateraezinak, ondo eginez gero behintzat. Ekologistak, ordea, ez dira iritzi berekoak.

Momentuz parke naturalaren proposamena Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago eta bertan, aurkeztu nahi diren alegazio guztiak jasoko dira. Dena dela, arazo haundirik sortu ez eta onarpena lehenbailehen izango den esperantza dute Foru Aldundian, parke honetan barneratutako herrietako udaletxeak ere ados agertu baitira.



Orkatzategiko haitzetan sai arreak daude

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

Izozkitekigozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA



**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Jaime García

Munduko matematikari azkarrena

Jaime García kolonbiarra munduko matematikari azkarrena da, eta hori ziurtatzen duten bost munduko errekor ditu.

Egunotan Euskal Herriko eskoletan dabil Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta, kalkuluak egiteko duen azkartasunaz ikasle eta irakasleak aho zabalik utziz.

- Abilidade kontua da edo berez datorkizu azkartasun hau?

- Ez, ez da berezkoa, gaztetan suspentsoak ere ateratzen nituen eta. Abilidade kontua bakarrik ere ez da. Abakoa oinarriz hartuta, azkartasunean edozein kalkulagailuri irabaz dakiokela konturatu nintzen eta hortik aurrera teknika garatzen joan naiz.

- Ez al da bestelako doairik behar?

- Ez horixe, doai berezirik ez, baina sakrifizio handia bai. Kontzentrazioa eta logika ere garatu behar dira, eta nik ordu asko sartzen ditut, lan handia egin behar baita. Edozeinek lor dezake, baina disziplina batekin. Momentu honetan jarraitzaile ugari dut bai Españan baita Kolonbian ere.

- Zenbat ordu eskeintzen diozu?

- Garai batean 24 ordu egoten nintzen ikasten, lo egiteko gai ere ez nintzen. Formula orokorra aurkitu nahi nuen eta dexente kostatu zitzaidan. Zenbaki batzuekin asmatzen banuen ere, beste batzuekin ezinezkoa egiten zitzaidan. Formula hau aurkitu ostean lasaiago hartu dut eta orain egunean lau bat ordu sartzen ditut.

- Teknika bereziren bat erabiltzen duzu?



“ π zenbakia
50 mila dezimal
baino
gehiagorekin
kalkulatze
gertatzen ari
naiz”

- Bai teknika ugari erabitzen da, ni nemoteknian oinarrizten naiz asko. Teknika hau oroimena garatzeko erabiltzen da, zenbakiak ezezik hitzak ere gogoratzeko.

- Munduko azkarrena izaten jarraitzeko lan handia egin behar da...

- Bai, lan handia eskatzen du. Hainbat liburu dut idatzita. Behin errekor bat 100 zifrako zenbakiaren errokatua 15 zentezimatan kalkulatzeko eman zidaten. Orain π

zenbakia 50 mila dezimal baino gehiagorekin kalkulatzeko gertatzen ari naiz.

- Zerk ekarri zaitu Euskal Herrira?

- Kolonbiako enbajadaren bitartez etorri naiz, Eusko Jaurlaritzak eskatuta. Bizkaiko eskoletan ibili ostean, Gipuzkoako erdietatik ere pasatu naiz eta gero Gasteiz aldera egingo dut. Oso harrera ona egin didate leku guztietan eta etxean bezala sentitzen naiz hemen.

- Zer erakutsi nahi diezu gazteei erakustaldi hauekin?


- Gaurko gazteek kalkulagailu eta ordenagailuetan bakarrik pentsatzen dute. Honekin bakoitzak proposatutako helburu guztiak lor ditzaketela erakutsi nahi diet, hori bai lan asko egingez eta orduak sartuz.

- Gazteek, behar bada, lortu ezinezko zerbait bezala ikus dezakete?

- Hori pentsa ez dezaten kalkulak nola egin esaten diet, pausu batzuk erakutsi eta beraiek ere kalkulak egiten hasten dira. Hain azkar ez bada ere, emaitzak buruz ateratzeko gai izaten dira eta hori oso pozgarria da eurentzat.

- Zein aholku emango zenieke gazteei?

- Ez dezatela kalkulagailua gehiegi erabili, mende honetako asmakizuna bada ere, burua erabat atrofiatzen baitu. Honen ordez abakoa erabil dezatela eskatuko nieke, baina abakoa ondo erabilia, jende askok etxean izan arren, ez daki eta nola erabili. Abakoarekin ez dira batuketa eta kenketak bakarrik egiten, errokatuak, logaritmoak, berreketak... ere egin daitezke. Hau noski txikitatik erakutsi beharra dago, nagusiak jadanik kalkulagailua erabiltzera ohituta baitaude.



**“Orain zazpi urte
Aretxagazetak
bere lehen
pausoak eman
zituenean,
euskararen
normalkuntza
lortzea zen
helburua”**

Aretxagazeta gazteleraz? Ez eskerrik asko

Eskerrak lortu ez dutela. Lorenzo Fernández PSE-EEko zinegotziak orain hamabost egun Aretxagazetan esandakoaren arabera, bere partiduaren programan bazen gerora gauzatu ez den zerbait. Beste Aretxagazeta bat egin nahi zuten, ezagutzen dugunarekin zerikusirik izango ez lukeena. Gaztelera hutsean idatzia eta herrian dauden erdaldunei zuzendua. Horregatik diot poztu egiten naizela beren helburua lortu ez dutelako.

Arrazoi asko egon daitezke nire ikuspuntua argudiatzeko, baina garrantzitsuena herri aldizkarien eta orokorrean herri komunikabideen sorreraren filosofian agertzen da. Orain zazpi urte Aretxagazetak bere lehen pausoak eman zituenean, euskararen normalkuntza lortzea zen helburua. Loramendi taldearen inguruan sortu zen proiektua eta bertan lanean aritu ziren gizon emankumeek argi zuten hori zela, herriari herriko informazioa emateaz gain, landu beharreko ideia. Arrasaten antzeko zerbait gertatu zen Arrasate Press eta aed elkar-tearekin. Batetik euskara bultzatu,

normalkuntzaren alde lan egin eta herriko albisteak eman.

Premiazko hiru oinarri haue-tatik Lorenzo Fernándezek eta bere partidu kideek sortu nahi zuten aldizkariak ez luke bat bera ere beteko. Asko jota herriko informazioa ematearena, baina horretan ere dudak dauzkat. Gainera proiektu honek inoiz ez luke herrian oinarri sendorik lortuko eta hori gutxi balitz ez lioke inondik inora erdaldunen integrazioari lagunduko.

Dena den, oraindik askoren-tzat Aretxagazetak diskriminatu egiten ditu erdaldunak, sozialistak kasu. Niretzat, aldiz, euskararen egoerak azken urteotan onera egin badu “diskriminazio positibo” honen ondorioz izan da, alde haundi batean. Erdaldun askok beren burua diskriminatuta ikusiko dute, hauek inoiz ez dute euskararen alde ezer egingo. Beste batzuk, integratzeko ahaleginetan euskara ikasteko gai izango dira eta hauentzat aukera ederra da euskarazko herri komunikabi-deena. Gazteleraz beste komu-nikabide asko daude Fernández Jauna.

Gorka Etxabe

ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43

Alergia, udaberriko ondoeza

Negua luze egiten da sarritan eta udaberria noiz helduko zain egon gara bat baino gehiago, txoriak kantari entzun, zelai eta basoak lorez beteta ikusi, eguzkiaren berotasuna sentitu...

Beste batzuk, ordea, beldurrez hartu dute martxoaren 21a, ondo dakite-eta honek dakarrena: txori, lore eta eguzkiarekin batera begi gorrituak, sudurreko jariora, doministikuak eta batzutan arnasa ezin ondo hartzea datozela. Aurtengoa, gainera, udaberri laza izango ei da.

Eguna luzatzen hasia da eta eguzkiak ere tartekartarteka berotzeko gai dela erakusten digu. Zuhaitzak poliki-poliki hosto berriz eta lorez bete zaizkigu, baita zelaiak ere. Hain politak diren lore hauek, ordea, lorauts edo polena dute; batzuntzat ikustezina dena besteez nabari-nabaria da, ondoeza sortzez gain oso kaltegarria izan daitekeelako osasunarentzat.

UDABERRIKO ARAZOA

Alergiak orokorrean betidanik udaberriarekin lotu izan dira edo behintzat entzute haundiagoa izaten dute. Eta egia da, udaberrian askoz indar haundiagoa hartzen dute alergiak sortutako ondoezek. Hauek lorautsari dagozkionak izaten dira, landare eta zuhaitz mota ezberdinek lorea izatean sortutakoak.

Mediku eta adituen esanetan, bestalde, gero eta alergia gehiago agertzen ari da azken urteotan eta ez bakarrik udaberrian, urte osoan

zehar ere bai. Honen zergatia asmatzea ez da batere erreza, atmosferako kutsadura, klimaren aldaketak... Azken arrazoi honi oso lotuta egon daitekeela diote askok, batez ere neguak lehen baino bigunagoak direlako.

ZER DA ALERGIA?

Organismoak sustantziei immunologikoki aurre egiteko duen gaitasunean aldaketak sortzean ematen dira alergiak. Gorputzean kanpoko sustantzi kaltegarriak barneratzean, erreakzio immunologikoak ematen dira, kanpoko sustantzi hauek gaitzik egiten ez dutenetan bihurtu eta kanporatzen dituzten antigorputzak sortuz. Pertsona batzuen gorputzek, ordea, minik ematen ez duten sustantziekiko ere erantzun bera sortarazten dute.

Antigorputzak sustantziak izandako lehenengo kontaktuan sortzen dira, nahiz eta orduan ezer ez nabaritu pertsonak. Ondorengo kontaktuetan erreakzioa agertzen joaten da, denborarekin gero eta bortitzagoa eginez. Alergia eman dezaketen sustantzien artean etxeko hautsa, animalia batzuen azal eta luma, elikagai batzuk, sendagai batzuk, intsektuen haginkadak eta lorautsa daude.

ALERGIA MOTAK

Alergia gaixotasun bat da; batzuk, ondoeza besterik ez dakarte eta beste batzuk, osasunarentzat benetan kaltegarriak bihur daitezke. Gaur egun alergia mota ezberdinak bereiz daitezke. Ohikoena, ordea, bi dira. Batetik, asma ematen duen alergia dago, bronkioetako mukosarengan ondorioak dituen eta bestetik, rinitis alergikoa sortarazten duena, *fiebre del heno* (belar sukarra) deitua, sudurreko mukosarekin zerikusia duena.

Bronkioetako asma eragiten duen alergia urte guztian azaltzen da, nahiz eta udaberri eta udazkenean askoz gogorragoa izan, bere



Jadanik lorez bete dira inguruko zuhaitzak

eragina klimaren aldaketekin oso lotuta dagoelako. Asma hau, ordea, ez dago lorautsarekin bakarrik lotuta etxeko hautsak, akaroek, hautsean dauden parasitoek,... sortarazi dezaketelako.

Rinitis alergikoa, berriz, ia bere osotasunean lorauts mota ezberdinek sortarazten dute, eta doministikuak, sudurreko jariora, hazgurea ematen duten malkoz jositako begi gorrituak... jasan behar izaten dira.


GAIXOTASUN GENETIKOA?

Ezin da erabateko zehaztasunez esan, baina bronkioetako asmaren kasuan genetikoa izan daiteke; hau da, gurasoengandik hartua eta seme-alabei pasatzeko aukerekin. Rinitisaren kasuan, berriz, ez. Ez dago hori frogatu duen inolako azterketarik.

Umetan agertzen diren asma arazoak defentsa sistema edo sistema immunologikoa erabat garatu gabe duelako izatea ez da harritzekoa eta gaztarora heltzean desagertu egiten dira. Hau, ordea, ez da beti gertatzen eta honek jarraitu egiten badu, orduan arazo serioan bihur daiteke.

ALERGIA ANTZEMATEA

Gabriel Elorriaga familia medikuaren esanetan, sintomak ikusita, normalean erreza izaten da alergia bat dela antzemandatea "guk sintomak ikusita zer den antzeman arren, ondoren alergologoarengana bidaltzen da gaixoari azterketa zehatzagoa egin diezaion. Familia medikuok sintoma



Azaleko frogak egiten dira lorauts alergiak antzemateko

“Famili medikuok sintoma larrirentzako momentuko erremedioa besterik ez dugu jarten”

larrirentzako momentuko erremedioa besterik ez dugu jarten”.

Asmaren kasuan gradu ezberdinak egoten dira. Arinena noizbehinka besterik ez da agertzen, ar-

nasa hartzeko arazo txiki batzukin; tartekoa duen pertsonak arnasa hartzeko arazo haundiagoak izaten ditu; eta azkenik larriena duenak arazo kronikoak dituela esan daiteke. Asma larri hau beti espezialistaren esku uzten da, alergologo edo neumologoaren esku. “Rinitisak, berriz, alergologoek ere kasu egin arren, normalean familia medikuok eramane ohi ditugu, ondoeza sortu arren, arazo larriak ez dituztelako ematen” dio Gabriel Elorriagak.

FROGAK ETA SENDAGAIAK

Alergia bat den eta zerk ematen



Celia García

Celiari 6 urte zituenean agertu zitzaizkion alergiaren lehenengo sintomak, negar malkoz jositako begi gorrituak eta burutik beherakoaren ezaugarriak. Begietako arazoren bat zela pentsatuta, okulis-

tarengana eramane zuten eta honek alergia itxura zeukala esan zien.

Denbora poliki-poliki pasatu egin zen eta 12 urte izan arte ez zen joan alergia frogarik egitera. “Urratu batzuk egin zizkidaten beso eta bizkarrean eta urratu bakoitzean sustantzia ezberdinen tanta batzuk bota zituzten: margariten lorautsa, olibondoen lorautsa, zakurren sustantziak... Urraturen batek hazgurea eman eta haunditu egiten bada, horra bota den sustantziak ematen dizula alergia esaten dute”.

Celiaren kasuan gramineen, belar, gari, zekale, eta olibondoen lorautsari ziola alergia esan zioten, *rinitis alergikoa* deritzaiena. “Maizta inguruan hasten naiz ondoezekin eta uztailearte irauten didate. Udaberria lehorra edo hezea iza-

teak ere garrantzi handia du niretzat, lehorra bada, askoz okerrago pasatzen baitut. Bedarra mozteko garaia heltzean, esaterako, oso gaizki pasatzen dut begiak ezin zabaldu, sudurrean izugarrizko hazgurea, doministikuak uneoro... Osasunarentzat ez da kaltegarria, baina oso molestua bai”.

Ondoezok eramangarriagoak egiteko sendagaiak badaude, baina Celiak azken lau urteotan ezin izan du ezer hartu tartean bi haurdunaldi izan dituelako. Beste bide bat bakunak hartzea da, udazkenean hasi eta udaberri bitartean jarten dira. Batzuk sendatzeko bide bakarra dela esan arren, Celia aspertu egin zen eta zazpi urtetan hartu ostean, uztea erabaki zuen ez baitzuen hobekuntzarik nabaritzen.

duen ikusteko sistema immunologikoa aztertu beharra dago; hau da, gorputzeko defentsak nola dauden ikusi behar da, horretarako odoleko analisiak egiten dira lehenengo eta ondoren alergologoak estudio txiki bat egin ohi du.

Asmaren kasuan, biriken funtzionamendua aztertzen da, espirometro izeneko aparatu batera putz egin eta biriken ahalmena neurtuz.

“Nik neuk denetik ikusi dut, txertoekin izugarrizko hobekuntza nabaritu duten gaixoak eta inolako eraginik izan ez dutenak”

Gaixoak, berak ere, etxean beste froga batzuk egin ditzake, “peak flow” izeneko aparatu txiki batzutarara putz egin eta birikak airea gordetzeko duen ahalmena ikus baitaiteke. Zenbat eta txikiagoa izan ahalmen hau, tratamendu haundia behar du gaixo horrek. Azkenik, bai asma dutenei bai rinitisa dutenei, azaleko frogak egiten zaizkie. Beso eta bizkarraldeko azalean sustantzi ezberdinak jar-

tzen dira partxe batzuen bitartez, orratzarekin zulo txikiak egin eta honen inguruan gorrituak agertuz gero, sustantzi hori dela alergía ematen diona esaten da.

Alergia duen jende askok txertoa hartu ohi du urtean zehar udaberriko lorautsaren eragina ez dadin hain mingarria izan. Txerto hauen inguruan uste eta iritzi ugari dago: neumologoen, asma dutenentzat ez dutela balio diote; eta alergologoen, berriz, oso eraginkorrak direla. “Nik neuk denetik ikusi dut, txertoekin izugarrizko hobekuntza nabaritu du-

ten gaixoak eta inolako eraginik izan ez dutenak, beraz ezin da orokorrean esan” dio Elorriagak.

Behin alergía agertuz gero, bere sintomentzat sendagaiak aurkitzea besterik ez da geratzen. Eztula, mukiak eta negarrak gutxitu eta arnasa hartzen lagunduko duen sendagai natural nahiz kimikoak aurkitzea.

Estadistikek diotenez, jendetza-ren %10ak, gutxi gora behera, aler-

giaren bat jasaten du. Gure bailaran ez da oraindik horrelako azterketarik egin, baina laister egingo delakoan daude. Momentuz oso udaberri latza datorrela iragarri dute, neguan euri asko egin eta orain tenperaturak igotean lorauts ugari pilatu baita atmosferan. Beraz, etxetik ahal bezain gutxien atera, eguzkitako betaurrekoak erabili eta medikuaren aholkuak jarraitzea besterik ez zaie geratzen alergía jasan behar duten gaixo hauei.



Gramineen lorautsak arazo ugari ematen ditu



Andoni Miguel

Andoni eta Fran anaiak, urte guztian katarroarekin egoten zirelako, 10 urtekin alergía frogak egitera joan ziren Gasteizera, garai hartan behintzat ez baitzegoen hemen egiterik. Azaleko frogak egin

ostean biek akaroiei, etxeko hautsean aurkitzen diren parasitoiei, zietela alergía ikusi zien, baina Andonik *bronkioetako asma* erakoa du. “Hasieran oso gaizki pasatzen nuen arnasa hartzeko zailtasun haundia, eztula, begiak malkoz beteak... izaten baintuen. Orain, ordea, ondo moldatzen naiz, badakit eta nola jokatu eta zer egin” dio Andonik.

Udaberriaren etorrera bereziki nabaritzen ez badu ere, leku eta klima aldaketak asko sentitzen dituela dio, kanpora oporretara joatean esaterako. Baita ama kanpoan delako etxea garbitu gabe gelditzen bada egun batzutan ere. Hala eta guztiz, horrek ez dio kirola egitea galerazten eta sarritan ikus daiteke

trenbidean korrikan “Bai batzutan nabaritzen dut asma daukadala korrikan noanean, baina orokorrean kirola egitea oso ondo datorkidala sentitzen dut. Elikadura ere oso garrantzitsua da, azkenengo teoriari kasu eginez gero, gibelak ondo lan egiteak berebiziko inportantzia baitu. Horrek ez du esan nahi dietarik jarraitzen dudarik, baina bai ondo jaten dudala”.

Badaki ez duela sendabiderik bere gaitz honek, 40 urtetik aurrera agian sintomak gutxitzen joango direla esan badiote ere, eta Andonik gaixotasunarekin bizitzen ikasi du. Sendagaiak hartu beharra izan arren, bizitza normala egiteko gai da eta asma krisialdietan bentolinak laguntzen dio.



Aerobic-arekin batera step modalitatea ere lantzen da kiroletxean

Aerobic-a gero eta kirol arrakastatsuagoa

“Apuntatzen direnek poliki-poliki lortzen dute lekua izatea”

Aerobic-a eta antzeko kirolek arrakasta izugarria hartu dute azken urteotan. Aretxabaletan ere berdintsu gertatu da, eta aurtengo urtean esaterako, plaza guztiak bete direnez, modalitate hau praktikatu nahi duenak, lekua egin arte etxoin beharko du. Batzuk dagoeneko herriaren lekuri ez dagoela eta, Arrasateko gimnasioetara ere jo dute.

Kiroletxean plazak beteta

Pili Muñagorri, aerobic irakasleak, orain bost urtetatik hona dihardu aerobic-a ematen. Berak adierazi digunez, urtero izan ditu klaseak beteta baina iaz esaterako kopurua jeitsi egin zen, agian lekuarekin arazoak izan zituztelako. “Dena

dela, aurtengo jende kopuruak nabarmen egin du gorantz, plaza guztiak bete direlarik”. Honen arrazoia zein izan daitekeen jakin ez arren, bere ustez kiroletxera aldatzearena izan daiteke, horixe izan baita iaztik aldatu den gauza bakarra. Beno eta beste aldaketa bat ere azpimarratu nahi izan du, arraroa bada ere, taldean hiru mutil daude eta hauek mimo haundiz zaintzen ei dituzte.

Iazko lokal arazoak konpondu ondoren, Pili oso gustora dago kiroletxeko lokal berrian. “Lokal oso ederra da, leku dexente dago eta gainera egurrezko lurra eta ispilua daude. Dena dela, lurra buztitzen duten itxufinak ere badaudela esanez bukatu du”.

Lazpiur bikain Gorlako igoeran

Joan den martxoaren 19an, San Jose egunez, afizionatu mailako XXV. Gorlako igoera ospatu zen Bergaran. Xabier Lazpiur atxabaltarra bederatzigarren postuan helmugaratu zen, irabazlearengatik oso segundu gutxitara. Beraz, txirrindularitzara itzuli ondoren, egoera onean dagoela erakustera eman zuen eta ondo defenditu zen 8,5 km-tako ibilbidea duen aldapan.

Gainera, orain bederatzi urte garai-pena lortu zuela Lazpiurrek igoera horretan bertan esan beharra dago.

Iñurrategi anaiak Nanga Parbatera

Beste erronka berri baten aurrean ditugu Felix eta Alberto Iñurrategi. Oraingo honetan Himalayan kokatuta dagoen Nanga Parbat 8.125 metroko mendia heldu nahi diote. Espedizio berri honetan Jon Lazkano bergararra eta Jose Carlos Tamayo ere izango dituzte lagun. Apirilaren bukaera aldera abiatuko dira haruntz.

Aerobitoi benefikoa Arrasaten

“Mugi zaitez Ertamerikaren alde!” lemapean aerobitoi benefikoa antolatuta da Arrasaten apirilaren 17rako. Ekitaldi honen helburua Ertamerikan bizi duten egoera latzari laguntzeko dirua batzea da. Dirua Gipuzkoako kutzak duen kontu benefiko baten bitartez bidaliko da bertara. Aerobitoi saioa Iturripeko kiroldegian burutuko da arratsaldeko 4etatik 7etara.

IBARRA



Tabakoa eta ikasmateriala

ESTANKOA

REGIO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Asier Atxa

Ulma-Cegasa taldeko txirrindularia

Iaz Dorletako Ama txirrindulari taldeko jubeniletan denboraldi bikaina egin zuen Asier Atxak eta aurten Ulma-Cegasa talde oñatiarrean emango dio hasiera denboraldiari. Hamalau txirrindulari dituen taldea da Oñatikoa, guztiak ere lehen urtekoak.

Asierrek datorren domekan Lizarran izango du lehen karrera. Bere iritziz, afizionatueta lehen urte hau esperientzia hartzeko urte garrantzitsua izango da.

• Zein izan da zure ibilbidea bizikletaren munduan?

Hamabost urtekin hasi nintzen kadete mailan Dorletako Ama txirrindulari taldean. Bertan jarraitu nuen iaz arte, jubeniletako bigarren urtea amaitu arte. Egia esan, iaz hasi nintzen pixkat nabarmentzen, denboraldi nahiko ona egin ondoren. Aurten, berriz, Ulma-Cegasa talde oñatiarrean ekingo diot denboraldiari.

• Nolako saltoa izan da jubeniletatik afizionatueta?

Denboraldia datorren domekan hasiko dudanez, karreretan dagoen mailari dagokionez, oraindik ezin dut gauza haundirik esan. Dena dela, entrenamenduetan seriotasun gehiago ikusten da, material hobea dago eta alde horretatik txirrindularioi ere gehiago eskatzen zaigu. Oraindik denboraldia hasi ez dudan arren, gogorra dela esaten dute.

• Nolako txirrindulari taldea du Ulma-Cegasa?

Hamalau jokalarirekin osatutako talde gaztea da. Denok lehen urte dugu afizionatueta eta guztiok 18



“Ulma-Cegasa 14 txirrindulari gaztez osatutako afizionatu mailako taldea da”

urte ditugu. Gipuzkoa mailan selezioa egin ondoren hartu gintuzten eta horrez gain, bi arabar eta nafar bat ere badaude. Taldean ez dago beteranorik, eta momentuz ez dugu inorentzako lanik egin beharko. Beraz, aurten ikusiko da aurrean nor ibiltzen den eta nori lagundu beharko zaion.

• Zure burua nola ikusten duzu afizionatu mailan?

Afizionatueta lehen urtea denez, denboraldia ahalik eta ondoen aurrera ateratzea izango da nire

helburua. Aurten karrerak bukatzeaz nahikoa izango dela uste dut. Duda barik, esperientzia hartzeko urtea izango da.

• Ibilbide aldetik aldaketa haundia gongo da?

Bai, karrerak luzeagoak izango dira, 100 kmtik gorakoak. Karreretako martxa ere gogorragoa izango da, jakina.

• Born-Jay eta Ulma-Cegasa taldeak bailarako txirrindularientzat profesio-naletara salto egiteko irtenbide bat direla uste duzu?

Born-Jay talde sendoa du, baina Ulma-Cegasa oraindik oso talde gaztea da. Orain artean, jubenil mailako bi urteak bukatu ondoren, talde batek fitxatu ezean, zure kontutik jarraitzeko aukera zegoen. Orain, berriz, lege berri bat atera da eta beronen arabera, talde batean ez bazaude jubeniletan jarraitu behar duzu eta karrera bat gutxienez irabazi beharra dago afizionatueta igotzeko. Beraz, alde horretatik txirrindulari munduan jarraitzeko aukera eskaintzen dute Born-Jay eta Ulma-Cegasa.

• Bizikletaren gainean zein ezaugarri du Asier Atxak?

Jubeniletan sprinean erakutsi nuen nire abilezia, baina, hala ere, oraindik ez daukat hain garbi.

• Eta nolako da zu moduko txirrindulari baten bizitza?

Ematen duena baino gogorragoa. Egunero entrenatu eta zaindu egin behar da. Janaria ere zaindu beharra dago. Azken finean, dedikazioa eskaini behar zaio, beste kirolei moduan. Juergak ere alde batera utzi behar dira, bata ala bestea aukeratu behar da eta nik txirrindularitzan jarraituko dut.

Garizuma eta Aste Santua, zaharren kontua?

Garizuman bijili eta baraua eta Aste Santuan elizkizunak izaten dira nagusi kristautentzat

Gaur egun gazte batzuei zer den Garizuma edo Aste Santua galdetuz gero, zaila izango litzateke, seguruenez, erantzun zehatzak ateratzea. Garizuma? etxean zerbait entzunda daukat; prozesioak, ez? Aste Santua, oporrak noski... Nagusiek eta ez hain nagusiek, berriz, ondo gogoan dituzte lehengo Garizumako betebeharrak eta Aste Santuko elizkizunak.

Garizuma oso garai berezia da kristautentzat eta zeresanik ez Aste Santua, Kristoren heriotz eta piztuera ospatzen baita. Gaur egungo gazteek, ordea, ez dakite Garizumako berrogehi egunetan zer burutzen den eta Aste Santua, zalantzarik gabe, oporrekin lotzen dute.

Garizuma

Garizuma berrogehi eguneko Aste Santuko jaietarako prestakizun garaia da, penitentzi eta damu garaia, norberak bere bizitzak daraman martxan geldidunetxo bat egin eta gogoeta egiteko garaia. Hori dela eta, ostiral guztietan bijili egiteko betebeharra dago, haragirik ez jatekoa, eta hausterre egunean eta ostiral santuan bijiliaz gain baraua egitekoa ere bai.

Koldo Zubizarretak umetan bizitako Garizuma oso garai goibeltzat dauka "beste eliz urtaro batzukin konparatuz, gabonak adibidez oso alaiak izaten ziren, garai tristetzat daukat. Orduko bizitza zigorrez eta debekuz betea zen, ez bakarrik elizaren egoeratik baita egoera sozialagatik ere, Francoren garaia baitzen".

Aste Santua


Aste Santua ospakizunez betetako lau egun izaten da elizarentzat. Lehengo prozesiorik egiten ez bada ere, herri guztiak dotore jantzita parte hartzen zuen prozesiorik, orain bi urte Antonio Astigarraga parrokoak gurutz bidea egin nahi izan zuen Izurietara, eta baita jende ugari



Orain bi urte Izurietara egin zen gurutzbidea

pilatu ere bertan. Ostegun eta ostiral santuak isiltasunean pasatzeko nahiko egun tristeak dira, larunbateko gaubeila edo pazko bijilia, berriz, oso ospakizun alaia da, Jesusen piztuera ospatzen baita. Horregatik badira urte batzuk mojen monastegian, eta orain parrokan ere bai, ospakizun ostean txokolate beroa gailatekin ematen dutela. Gero eta jende gutxiago inguratu arren, giro polita sortzen den elizkizuna da gaubeila, errito eta irakurgaiz jositakoa.

Garai batean elizak Aste Santuan kanpora joatea debekatu egiten bazuen ere, burutik pasatu ere ez zen egiten horrelakorik, gaur egun herriko jende gehientsuena atera egiten da. Hala ere, bada Aste Santuan herrian geratu eta Pazko astean joatea erabaki duenik ere, kristautentzat oso jai handia ospatzen delako lau egun hauetan.



Otoitz eta penitentzi garaia da Garizuma

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

ARBULO
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 943 79 02 24
ARETXABALETA

"ARINSA"

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 943 79 62 80
ARETXABALETA



Lehenengo Korrika

Bi argazki hauek, kalitate onekoak ez izan arren, balio haundikoak dira, 1980ko lehenengo korrikako giroa erakusten dute eta. Garai hartan Aretxabaletan Alkar taldeak gau eskola zuen eta bertan, euskara erakusten zitzaien nagusiei. Diru gutxi, baina giro polit eta umore onaz funtzionatzen zuenez, korrikako azkenengo egunerako, Bilboko erakustazokara -bertan bukatzen baitzen- joatea erabaki zuten arrasatekoekin batera, jaiari amaiera eman eta diru apur bat ateratzeko asmoz. Arientzako Etxebarriko etxeoandrea eta Bedoñako beste baserritar bat ogi eginean ibili ziren gau osoan Bilbon, baita barra-barra saldu ere baserriko ogiok. Asto bat ere eraman zuten eta argazkian azaltzen diren **Koldo Zubizarreta** eta **Xabier Zaloñak**, ijito jantzita, 50 pezetaren truke erakustazokan bueltatxo bat ematen zieten gurdian jarritako haurrei. Goizaldeko 3ak aldera bukatu zen jaia eta hura komeria astoa kamioira igoteko. Izugarrizko izotza egin zuen gau hartan eta astoa labandu egiten zenez, ezin igoka ibili ziren. Elkarlan eta ilusio haundiz egindako lehenengo korrikaren erakusgarri gera bitez bi argazkiok.

Argazkiak eta informazioa: Resu Abasolo

Iber

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 04 39

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Etxabe harategia

Durana 4

☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

LANA

◆ Esperientziadun neska bat **ileapaindegian lan** egiteko prest. Tfnoa: 943 79 72 77

◆ Matematika, fisika, kimika eta marrazketako **klaseak ematen** dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako **klaseak hartuko** lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ Esperientziadun neska **sukalde laguntzaile** bezala edo taberna nahiz jangelako **zerbitzari** gisa lan egiteko prest. Interesatuak 943 79 73 42 telefono zenbakira deitu.

◆ Enpresa-batek **mezulariak** behar ditu, furgonetarekin ibiltzeko. Tfnoa: 943 79 92 77

◆ Taberna batean **zerbitzari lanak** egiteko pertsona bat behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Programatzailea. Deba Garaia. Erref. 17073/5

Kontabilitateko administraria. Durangaldea. Erref. 17255/6

Bi zaintzaile. Zarautz. Erref. 17335/4



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

Injineru tekniko mekanikoa. Bilbo. Erref. 17377/2

Kirol medikuntzan lizentziaduna. Ibaizabal. Erref. 17501/4

Komertziala. Arabako Lautada. Erref. 16770/4

Trokelgilea. Zumarraga. Erref. 16940/4

Sare industrialen irakaslea. Bilboko ezkeraldea. Erref. 17466/1

DENETARIK

◆ Aretxabaletan taberna alokagai. Tfnoa: 943 79 01 47 (Jose).

◆ SS-AB matrikuladun Renault supercinco zuria salgai, oso egoera onean. 943 79 68 75 telefono zenbakira deitu.

◆ Bugno bizikleta bat salgai dago. Tfnoa: 943 77 00 95 (Jon)

ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat salgai Bedarretan garajea hartzeko aukerarekin. Interesatuok 639 41 70 06 telefono zenbakira deitu.

LEHIAKETAK

◆ **Iparragirre saria 1999.** Zumarraga eta Urretxuko Udaletako Kultura Batzordeek narratiba eta poesiako lehiaketak antolatu dituzte. Bi arloetan bi maila bereiztuko dira adinaren arabera, gazteak (15-18 urte) eta helduak (19 urtetik gorakoak). Gaia librea izango da eta lehiakide bakoitzak gehenez bi lan aurkez ditzake arlo bakoitzeko. Lanaren lau kopia aurkeztu behar dira, idazmakinez eta bi espaziotan idatziak, folio edo DIN A-4 neurrian. Eskatutako luzeera narratiban, gazteentzat 3-6 orri izango da eta helduentzat 6-12 orri. Poesian, berriz, gazteak 75 lerrotik gora idatzi beharko dute eta helduek 200 lerrotik gora.

Lanak aurkezteko epea 1999ko ekainaren 18an bukatuko da eta Urretxu edo Zumarragako udal-txetara, Iparragirre Saria jarriaz, edo hurrengo helbidera bidali beharko dira: Kultur Etxea, Iparragirre Saria 1999, Jauregi kalea 19, 20700 Urretxu

Sariak: Gazteak: 1.: 25.000 pta.

2.: 15.000 pta.

Helduak: 1.: 50.000 pta.

2.: 30.000 pta.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

CONSUM EROSKI

Orain arrandegi eta okindegiaz, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11

ARETXABALETA

Agian... nork daki!



Txoriak kantari, zuhaitz eta zelaiak lorez josita, eguzkia kukuka, ahhh... heldu da udaberria. Aurtengoa, gainera, berezia izango delakoan nago, agian maitemindu egingo naiz edo agian urteroko alergiak harrapatu eta doministikuka pasa beharko ditut hiru hilabeteok. Nork daki!

Kurtzebarri eskolako kontuekin hasi beharrean nago, bertako ikasle eta ekintza izan dira eta protagonista hile honetan. Lehengo martxoaren 14an Gasteizen ospatutako Euskal Eskola Publikoaren festan, lehen hezkuntzako atalean, 6. mailako **Lur Delgado** ikasleak 2. saria jaso zuen bertso txapelketan. Aratusteei buruzko lau koplak egin zituen berak. Hurrengo martizenean, barriz, **Jaime García** munduko matematikari azkarrena izan zen bertan; aho zabalik utzi ei zituen ikasle eta irakasleak. Benetan ete da hain azkarra edo trukoren bat izango ete du? Azkenik aste honetan

Kurtzebarri eskolako VII. antzerki astea burutu da. Adin guztietako ikasleak ibili dira antzezlanetan, baita jende ugari pilatu ere beraiek ikusi guran.

Hemendik urte batzutara, agian, Kurtzebarritik ateratako euskal Antonio Banderas ikusteko aukera izan dezakegu, nork daki! Momentuz **Jon Lekunberri** martxoaren 17ko Goenkaleko kapituluak ikusteko aukera izan genuen. Mamuen inguruko adituaren papera egin zuen bertan. Goenkaletik Hollywood-era, nork daki!

Aktoregintza alde batera utzi eta kirolekin sartuko naiz, berri pozgarriak ditugu eta hemen ere. **Xabier Lazpiur** txirrindulari atxabaltarra 9. izan zen joan zen eguakotxean burututako Gorlako igorran. Orain bederatzi urte, barriz, lehenengo postuan bukatu zuen. Eguakotzekoa ikusita, eta aurten afizionatuekin hasi berri dela jakinda, agian, hurrengo urteren batean ere lehenengo postuan ikusi ahal izango dugu, nork daki!

Akaitz Garai Errealeko kadete mailako atxabaltar jokalarik gaztea Euskadiko 15. urte azpiko selekzioarekin Kanariar irletan izan zen. Horrelaxe lanean jarrai dezala eta urte batzuk barru futboleko talde onenetan ikusi ahal izango dugu jokatzeko, nork daki!

Usteak erdia ustela, baina udaberria heldu da eta amets egitea nork debekatu?

Liburutegiko txokoa

LIBURU BERRIEN ZERRENDA:

6 urtetik aurrera

- Zeren beldur zara? / Violeta Monreal
- Min dut mingainean / Margarita Mainé
- Argi superdetektibea / Paul von Loon
- Ahatetxo itsusia / Hans Christian Andersen

8 urtetik aurrera

- Keniako tximeleta / Pako Aristi
- Haize orratza / Antton Kazabon
- Elisabete lehoi domatzailea / Mariasun Landa
- Kaskarintxo / J. Ormazabal, Mariasun Landa
- Muxi eta Puxi / Txiliku

10 urtetik aurrera

- Rus doktorea / Gloria Sánchez García
- Espazioko istorio sekretuak / Joan Manuel Gisbert
- Tristeak kontsolatzeko makina / Anjel Lertxundi
- Arranopola! / Yak Rivais

12 urtetik aurrera

- Sugeak txoriari begiratzen dionean / Bernardo

Atxaga

- Mamuen dardarizoa / José María Mendiola

- Utz nazak bakarrik, Joe / Angela C. Ionescu
- Izen baten bila / M^a Victoria Merino
- Itzala itzuli zenekoa / Edorta Jimenez

14 urtetik aurrera

- Kanibalaren kaiolan / Xabier Mendiguren Elizegi
- Azken hegaldia / Jesús Ballaz

Narratiba

- Ostegunak / Jon Arretxe
- Naufragorik baten kontakizuna / Gabriel García Márquez
- Argizariaren egunak / Anjel Lertxundi
- Un ange passe / Pello Lizarralde
- Hemeretzi ipuin / Hans Christian Andersen

Kontsulta

- Euskal prehistoria deskubrituz: Kultur Turismo Gida / Julia Gómez Prieto...
- Espainiako gerra zibila Euskal Herrian / Josu Chueca, Luis Fernández...

Joseba Lopez de Armentia

MARTXOA

27

28

25
eguna

zapatua

domeka

ANTZERKI ASTEA

Kurtzebarri eskolan aste honetan burutu den antzerki asteari amaiera emango zaio arratsaldeko 6etan egingo diren antzerki saioekin.

MANIFESTAZIOA

Herriko talde eta elkarteek sortu berri duten "Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataforma" k manifestazioa antolatu du. Arratsaldeko 7etan izango da eta Herriko plazan emango zaio hasiera.

MENDI IRTEERA

Zaraia Mendizale Taldeak Otzaurte-Lizarrustira egingo du irteera domeka honetan.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Antzuolan, Uzarragara XXV. igorera burutuko da goizeko 10etan hasita. Bertan Fagor taldeko jubenilek parte hartuko dute.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Lazkaon, XXXII. Hesparru proba izango da lehenengo eta bigarren urteko kadeteentzat goizeko 11etan hasita.

26
egukotxa

ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak bazkideek ohiko batzar orokorra izango dute. Udaletxe zaharreko, Durana 11, 1. pisuko aretoan izango da batzarra arratsaldeko 7etan.

ERRAMU ZAPATUKO FERIA

Zapatu honetan erramu zapatuko feria ospatuko da Bergaran. Goizeko 9,30etan emango zaio hasiera eta egun guztian zehar ikuskizun ugari izango da.

MARTXOAK 29 -
APIRILAK 4


ASTE SANTUA

Ikus egitarau berezia 7. orrialdean.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

OSKAR
HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

T X I L L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Aldi/bi
943 71 20 02

*Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia*
IMANOL JANARI DENDA
Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

IKASTARROAK

KARIBEKO DANTZAK

Ikastaro honetan bi maila egongo dira:

- hastapen maila: apirilak 19an hasi eta maiatzaren 19a arte.
- sakontze maila: maiatzak 24an hasi eta ekainak 24a arte.

Irakaslea Julio Lantigua izango da eta Arrasateko Musakolako Gazte Txokoan emango dira klaseak astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara. Matrikula 4000 pta. izango da eta ikasle eta langabetuentzat 2500 pta.

PHOTOSHOP IKASTAROA

Bergarako Islada bideo tailerrak antolatuta, apirilak 12 eta 23 bitartean, arratsaldeko 5etatik 8etara emango da ikastaroa. Irakaslea Pablo Galarraga izango da eta plaza mugatuak izango ditu. Matrikula 15.000 pta. Interesatuok 943 77 91 58 telefono zenbakira deitu.

SEXUALITATE TAILERRA

“Emakumeak eta gizonak, nolako desioak, nolako kontraesanak” izenburudun sexualitate tailerra izango da Agurtzane Ormaza eta Garbiñe Merinoren eskutik. Apirilak 20 eta 27an eta maiatzak 4 eta 11an burutuko da tailerra arratsaldeko 6etan. Izena martxoak 31 baino lehen Arrasateko Gazte Bulegoan edo Emakume Sailean eman behar da. Matrikula, berriz, dohainik.

ASERTIBITATE ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROA

Pepa Bojó psikologoak, komunikazio eta sentimenduen adierazpenaren inguruko ikastaroa martxoaren 16an hasi zuen baina interesa izanez gero oraindik posible da bertan parte hartzea. Ekaina bitartean asteartero arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara izango da. Informazio gehiago 943 79 09 00 zenbakian.

Opor egunetako emisioak



Aste Santua datorrela eta Atxabalta telebistak ere opor eguntxo batzuk hartuko ditu. Datorren astean martizenean bakarrik izango da zuekin, herriko albisteak eta kirolen inguruko berriak emanaz. Hurrengoan, Pazko astean, berriz, eguakotxean emango dituzte herriko be-

rriak eta Atxabalta ezagutzen tartea. Azkenik apirileko bigarren astean, oporrei agur esan eta normaltasunez ekingo diote lanari.

Zuen etxeetan oraindik Atxabalta telebista ikusten ez bada opor egun hauek aprobetxa ditzakezue antenako teknikoarekin hitzegin eta ikusi ahal izateko falta zaion hori jarteko.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN

BEHARREZKO
TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 79 79 99
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 77 10 43
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



Arabako Larrea herrixkan bizi izan zen Jose Luis Arratibel 18 urte arte. Ondoren Arrasatera etorri zen, bertan lana aurkitu baitzuen, Cerrajeran. Denbora gutxi egin zuen bertan ordea. Aretxabaletako sakristaua jubilatuz zenean hona etorri zen bizitzera. Guztira 33 urte egin ditu sakristau lanetan, lan lotua izan arren, gustora egiten duela kontatu digu.

• Noiz hasi zinen sakristau lanetan herrian?

34 urte egingo ditut urrian.

• Zein lan mota egiten dituzu?

Dirua batu, kanpaia jo, eliza garbitu, irakurketak egin...

“Ahal dudan artean behintzat sakristau lanetan jarraituko dut”

• Afizioa ala ofizioa da?

Biak. Lana ordaintzen da, baina ez egiten den lan guztirako.

• Elizako lana lotua da?

Bai, oso lotua. Eguneroko lana da eta egun batean ezin baduzu, norbait bilatu behar duzu elizako lanak egiteko.

• Nork laguntzen dizu kasu horietan?

Koiñatuak.

• Zein zegoen sakristau zure aurretik?

Gregorio.

• Zenbat aldiz igo duzu elizako kanpandorrera?

Askotan ez, Gregorio sakristaua jubilatuz zenean, sistema automatikoa jarri baitzen.

• Anekdotarik?

Elizara ohosten sartu direnean, hiru bat aldiz edo ohostu dute.

• Zer egiten duzu bazkaldu ostean?

Pasiatu.

• Zer gogoratzen duzu zure haurtzarotik?

Gauza gutxi, libertate gehiago nuen.

• Kantuak euskaraz, latinez ala erdaraz?

Hiruretan ondo moldatzen naiz.

• Eta euskaraz badakizu?

Ulertu egiten dut, baina hitz egin gutxi.

• Zertarako erabiltzen da elizan batzen den dirua?

Elizako gastuetarako bereziki, elizako nominak ordaindu, mantenimendua...

• Nork eramaten du elizako administrazioa?

Orain Joxe Olabek.

• Zer egiten duzu denbora librean?

Goizean erreabilitaziora joaten naiz, gero elizako gauzak egiten ditut, pixkat irakurri eta kalera irten.

• Gaurkoan bizi ala geroan ere pentsatu behar da?

Gaurkoan bizitzea garrantzitsuagoa da, baina pixkat geroan ere pentsatu behar da.

• Noiz jubilatuko zara sakristau lanetik?

Ez dakit, ahal dudan artean behintzat jarraitzeko asmoa dut.

• Bizirik?

Txikiteoa.

• Gozozalea ala gazizalea?

Gozozalea gehiago, baina ezin dut jan.

• Zer kenduko zenuke mundu honetatik?

Biolentzia.

• Zein iritzi duzu bake prozesuaz?

Lanean ari dira, baina zaila da konpontzea, denek desberdin pentsatzen dute eta.

KOMIKIA

BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriabe

Aretxagazeta

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABAETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*
**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABAETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Pannila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABAETA
Tfno 943 79 68 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



◆ *Bazkari
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
© 943 79 24 58
ARETXABAETA

Dorleta taberna

Dorleta

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABAETA
Tfno 943 79 94 15

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51



Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu harategia

Mitarte, 1 • ARETXABAETA
Tfnoa: 943 77 03 08

Taberna Berri



*Taberna Berri
jatetxea*
Durana, 26 • ARETXABAETA
Tfno 943 79 20 67

Urbaltz taberna



**URBALTZ
TABERNA**

Mitarte, 21 behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABAETA



Mégane

EZAGUT EZAZU BESTE
INORK BAINO LEHENAGO
ZAITZEKO MODURIK
EGOKIENA

EZAGUT EZAZU MEGANE
BERRIAK ESKAINTZEN
DIZUN PRIMIZIA



RENAULT

MECA TAILERRAK

Tel.: 043 71 24 72 (Arropako) • Fax: 043 70 64 11